



Universidad
del País Vasco

Euskal Herri
Unibertsitate

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2016ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JULIO 2016

LITERATURA UNIVERSAL

Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jarri behar duzula.

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

1. galdera: 3 puntu.
2. galdera: 2 puntu.
3. galdera: 3 puntu.
4. galdera: 2 puntu.

2., 3. eta 4. galderak nahitaezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1: 3 puntos.
- Pregunta 2: 2 puntos.
- Pregunta 3: 3 puntos.
- Pregunta 4: 2 puntos.

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.

TESTUA

Me gustas cuando callas porque estás como ausente,
y me oyes desde lejos, y mi voz no te toca.
Parece que los ojos se te hubieran volado
y parece que un beso te cerrara la boca.

Como todas las cosas están llenas de mi alma
emerges de las cosas, llena del alma mía.
Mariposa de sueño, te pareces a mi alma,
y te pareces a la palabra melancolía.

Me gustas cuando callas y estás como distante.
Y estás como quejándote, mariposa en arrullo.
Y me oyes desde lejos, y mi voz no te alcanza:
déjame que me calle con el silencio tuyo.

Déjame que te hable también con tu silencio
claro como una lámpara, simple como un anillo.
Eres como la noche, callada y constelada.
Tu silencio es de estrella, tan lejano y sencillo.

Me gustas cuando callas porque estás como ausente.
Distante y dolorosa como si hubieras muerto.
Una palabra entonces, una sonrisa bastan.
Y estoy alegre, alegre de que no sea cierto.

A AUKERA

1. Antzinateko tragedia grekoa. Azaldu haren ezaugarri tematiko (pertsonaiak eta landutako gaiak) eta formal (egitura, hizkuntza poetikoa, taularatzea) nagusiak. Aipatu hiru poeta tragiko garrantzitsuenak eta haien obra bana. (3 puntu)
2. Identifikatu goian idatzitako poema zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea eta argitaratze-data. Koka ezazu bere egilearen ekoizpen poetikoaren barruan eta egilea bere testuinguru historiko eta literarioaren barruan. (2 puntu)
3. Egin poemaren gaiaren, metrikaren eta estiloaren azterketa bat, eta erlazionatu ezaugarri horiek egilearen eta haren garaiko joerekin. (3 puntu)
4. "Me gustas cuando callas porque estás como ausente". Bertso-lerro hori zenbait aldiz errepikatzen da, aldaera gutxi batzuekin, poeman zehar, eta haren interpretazioak polemika ekarri du. Zure ustez, zer esan nahi du poetak bertso-lerro horretan, eta nola erlazionatzen duzu obra osoak iradokitzen dizun maitasunaren eta emakumearen kontzeptuarekin? Argudiatu erantzuna ikuspuntu pertsonaletik eta zeure bizipenekin erlazionatuta. (2 puntu)

B AUKERA

1. Azaldu zer esparru geografiko eta linguistikotan eta zer testuinguru historikotan agertu zen trobadore-poesia, zergatik deitzen zaion horrela eta zer ezaugarri dituen formari eta gaiari dagokienez, batez ere "gorteko maitasuna" deritzonari buruz. (3 puntu)
2. Identifikatu goian idatzitako poema zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea eta argitaratze-data. Azaldu zer toki duen obrak egilearen ekoizpen literarioaren barnean, erakutsi haren poesiaren bilakaera eta aipatu obrarik adierazgarrienen izenburuak. (2 puntu)
3. Aztertu poema, eta adierazi zer joera edo mugimendu poetikori atxikitzekoa den. Adierazi zein diren atxikitze hori arrazoitzen duten ezaugarri hala formal (metrika, estiloa) nola tematikoak. (3 puntu)
4. "Me gustas cuando callas porque estás como ausente". Bertso-lerro hori zenbait aldiz errepikatzen da, aldaera gutxi batzuekin, poeman zehar, eta haren interpretazioak polemika ekarri du. Zure ustez, zer esan nahi du poetak bertso-lerro horretan, eta nola erlazionatzen duzu obra osoak iradokitzen dizun maitasunaren eta emakumearen kontzeptuarekin? Argudiatu erantzuna ikuspuntu pertsonaletik eta zeure bizipenekin erlazionatuta. (2 puntu)



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

LITERATURA UNIBERTSALA

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

OHARRA

- Oro har, puntu bat kendu ahal izango da (gehienez) ortografia-akatsengatik. Halaber, puntuak gehitu ahal izango dira, baldin eta adierazpena egokia, koherentea eta lotua bada.
- Ebaluazio-adierazle batzuei puntuazio jakin bat esleitu zaie. Hala ere, beste adierazle orokorrago batzuetan, puntuazio globala ematen zaio galdera osoari, eta zuzentzailearen gain uzten da bakoitzari zenbat puntu eman.

A AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Badaki nolakoa zen tragedia greko bat: gaiak, pertsonaiak, bertsifikazioa, obraren atalak, taularatzea: 2 puntu.
- Eskilo, Sofokles eta Euripides aipatzen ditu, eta haien obra bana: 1 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzen ditu: 1 puntu.
- Nerudaren ekoizpen poetikoa ezagutzen du, eta gai da *Veinte poemas de amor* obra (Maitasuneko hogeit hamar poema) ekoizpen horretan kokatzeko: 0,5 puntu.
- Hispanoamerikako poesia postmodernistaren testuinguruan kokatzen du Neruda: 0,5 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Poemaren gaia eta esanahia (maitasuna, emakumea, natura), Nerudaren lehen obretako neorromantizismo eta modernismoarekin erlazionatzen ditu, eta adierazten du zer bilakaera duten gai horiek poetaren geroko obran: 1,5 puntu.
- Zuzen deskribatzen du poemaren metrika (bertso alexandrotarra, errimak, ahapaldiak), eta Neruda gaztearen modernismoarekin eta erabilera metrikoekin erlazionatzen du: 1 puntu.
- Poemaren baliabide estilistiko nagusiak ezagutzen ditu: 0,5 puntu

4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematen du.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzen du.
- Gai da obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai da irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.



CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

B AUKERA

1. galdera (3 puntu)

- Trobadore-poesia agertu zen esparru geografikoa eta linguistikoa eta testuinguru historikoa azaltzen ditu: 1 puntu.
- Trobadore-poesiaren ezaugarriak, formari eta gaiari dagokionez, azaltzen ditu: 1 puntu.
- "Gorteko maitasun"aren sorkuntza ondo azaltzen du: 0,5 puntu.

2. galdera (2 puntu)

- Eskatutako datu zehatzak (egilea, obra, generoa...) identifikatzen ditu: 1 puntu.
- Nerudaren ekoizpen poetikoa ezagutzen du, eta gai da *Veinte poemas de amor* obra (Maitasuneko hogei poema) ekoizpen horretan kokatzeko: 0,5 puntu.
- Nerudaren obraren bilakaeraren norabidea erakusten du, eta gutxienez beste bi obraren izenburuak aipatzen ditu: 0,5 puntu.

3. galdera (3 puntu)

- Poemarekin erlazioa duten joera edo mugimenduak identifikatzen ditu: 0,5 puntu.
- Ezaugarri metriko, estilistiko eta tematikoak identifikatzen ditu, eta aipatutako joera eta mugimenduekin erlazionatzen (Ikusi A aukerako 3. galdera): 2 puntu.
- Aipatutako ezaugarri horiek Nerudaren espresio poetikoarekin erlazionatzen ditu: 0,5 puntu.

4. galdera (2 puntu)

- Iritzia koherenteki eta eskatutako gaia ardatz duela ematen du.
- Iritzia argudio, adibide eta bizipen pertsonalekin indartzen du.
- Gai da obraren ikuskera propio bat, ulertzailea, egituratzeko.
- Gai da irakurketak bere gustuen eta esperientzien arabera epaitzeko.